

ARAZURIKO BEROKIZELAIA IGERILEKUEN 2020KO EZOHICO ARAUDIA

COVID-19ren krisiak eragindako eta OSASUN MINISTERIOAK ezarritako araudiaren ondorioz, instalaziora sartzeko **salbuespenezko baldintza berriak** honako hauek dira (guztiak **aldatu edo egokitu daitezke**, nahitaez bete beharreko protokoloen arabera):

- Funtsezkoa da erabiltzaile guztien **kolaborazioa eta inplikazioa**, instalazioaren arau orokorrak eta banakako arauak errespetatzeari dagokionez, hala nola 2 metroko segurtasun-tarteari eustea, eskuak garbitzea eta desinfektatzea, eta kutsatzea saihesteko segurtasun neurri guztiak.
- Instalazioan baimendutako **gehieneko edukiera** Osasun Ministerioak edota Nafarroako Osasun Publikoaren Institutuak (NOPI) markatutakoa izango da. Edukiera denbora errealean egiaztatu ahal izango da www.oltzaleku.com webgunean edo *Gimnasio Virtual* aplikazioan.
- Hori dela eta, jende gehiegi dagoenean **sarrera mugatu** daiteke. Hala badagokio, sartu nahi duen abonatuak beste pertsona batek instalazioa utzi arte itxaron beharko du.
- Instalazioko espazio guztiak **edukieran mugatuta** daude, eta une oro errespetatu beharko da.
- Nahitaez bete beharko dira instalazioko **langileek** adierazitako baldintzak.
- Horietako edozein **ez betetzea** instalaziotik berehala kanporatzeko arrazoia izango da, eta abonua gutxienez 3 egunez etengo da.
- Araudi hori edozein unetan aldatu ahal izango da, bai **Osasun Ministerioaren** aginduz, bai aurrerago zehaztu daitekeen instalazioko **Espazioen Araudi Espezifikoaren** bidez. Aldaketa horiek ez dute inola ere ekarriko aurreko datan kontratatutako zerbitzuen **tasak itzultzea edo konpentsatzea**.

Instalazioaren erabilera-eremu **bakoitzaren araudi espezifikoa** honako hau da:

Sarrera nagusia:

- 2 metroko segurtasun distantzia errespetatzea.
- Instalaziora sartu aurretik, nahitaezkoa da eskuak eta oinetakoak desinfektatzea horretarako ezarritako materialarekin (hidroalkohola eta alfonbra).
- Gomendatzen da abonamenduak Internet bidez egitea: www.oltzaleku.com
- Gomendatzen da ordainketa guztiak txartelarekin egitea.
- Tornutik igaro ahal izateko, abonatzeari esleitutako giltza eskatu behar da harreran. Giltza galduz gero, beste bat erosi beharko da 5 euroren truke (hurrengo ordainketetarako ere mantendu beharko da edo uda amaieran itzuli ahal izango da).
- Norberaren hondakinertarako plastikozko poltsa bat eskatu beharko da.
- Instalazioan barna ibiltzeko, horretarako jarraibideak bete behar dira.
- Irteeretan ere tornutik pasatu behar da, eta segurtasun-txanda eta -distantzia errespetatu behar dira.
- Ezin da harrera-gune nagusian egon, guztiz ezinbestekoa ez bada.

Komunak

- Genero bakoitzeko komun bakarra egonen da, behar bezala adierazita. Seinaleen bidez ezarriko da sarrera.

- Komunak etengabe desinfektatuko dira.
- Aldagelak, dutxak, lehorgailuak eta armailu txikiak itxita egonen dira, segurtasunagatik.
- 20:00etik aurrera -ekaina eta iraila- eta 20:30etik aurrera -uztaila eta abuztua-, instalazioko komunak itxi eta tabernako komunak egokituko dira.

Zona Berdea

- Berdegune zabala dago, hainbat espaziotan banatuta. Gune horietan, baimendutako gehieneko edukiera adieraziko da, behar bezala seinaleztatuta.
- Ereku bakoitzean, pertsona guztiek izango dute segurtasun-distantzia mantentzeko ardura.
- Pertsona bakoitzaren gunea toallak markatuko du. Espazio horren barruan egon beharko dute pertsona bakoitzaren gauzek.
- Hamakak erabili ahal izanen dira, baina ezin izanen dira instalazioan utzi.
- Berdeguneak ez du paperontzirik izanen. Guztiak berdegunearen eta instalazioaren irteeran egonen dira. Horregatik, pertsona bakoitzaren ardura izanen da okupatutako espazioa garbitzea.
- Horregatik, guztiz debekatuta dago berdegunean jatea. Edan besterik ezin izanen da egin.
- Itxita geratzen dira erabilera publikoko iturri guztiak.

Erretegiak:

- Barbakoak erabili ahal izanen dira.
- Mahai-zapia mahai guztietan erabili beharko da, bai barbakoarekin erabiltzen direnetan, bai beste otordu batzuetarako erabiltzen direnetan ere.
- Erabiltzen duten pertsonak dena garbi uzteko erantzukizuna izanen dute.
- Ereku bakoitzean, pertsona guztiek izanen dute segurtasun-distantzia mantentzeko ardura.

Haurrentzako parkea:

- Berrito abisatu arte, haur-espazio guztiak itxita geratzen dira.

Jolaserako igerilekua

Edukiera 90 lagunekoa da.

- Aforoa kontrolatzea sorosleen erantzukizuna izanen da, eta nahitaez bete beharko dira haien jarraibideak.
- Nahitaezkoa da dutxa hartzea bertara sartu aurretik.
- Osasun Ministerioak edota Nafarroako Osasun Publikoko Institutuak urruntzeari, erabilera-denborari eta abarri buruz ezartzen dituzten jarraibideak beteko dira.
- Debekatuta dago material ludikoak erabiltzea (baloiak, txurroak...).
- Edukiera % 50era murrizten denez, erabat debekatuta dago edozein pertsona igerilekuaren hondartzan egotea, mendekotasuna duen pertsona baten edo adingabe baten zaintzapean daudenak izan ezik.
- Era berean, uraren ertzean ura erabili gabe egotea saihestuko da. Sorosleak aginduta, erabiltzaileek bainatu edo igerilekutik alde egin beharko dute, beste erabiltzaile batzuek ere erabil dezaten.

- Igerilekura sarrera ohikoa izanen da, edukiera baimendutakoa baino txikiagoa den bitartean; sarrerak ate batetik egingen dira eta irteerak beste batetik.
- Soroslea arduratuko da edukiera kontrolatzeaz eta erabiltzaileendako jarraibideak kudeatzeaz.
- Edukiera % 85era iristen denean, sorosleak hala aginduta, sarrerako atea itxiko da, eta igerilekutik ateratzen diren pertsona kopuruaren neurrian sartuko dira pertsona berriak ere.
- Edukiera %100ean bete bada, eta jendea bainatzeko zain badago, sorosleak hala aginduta, 15 minutura mugatuko da bainua.

Haurrendako igerilekua:

Edukiera 37 lagunekoa da.

- Aforoaren kontrola Oltzaleku S.L.-ko langileen erantzukizuna izanen da, eta nahitaez bete beharko dira haien oharrak.

Ostatu-jatetxea:

Sektore honetarako ezarritako araudi espezifikoak eta protokoloak beteko dira.

- Ostatura sartzeko tornua erabili beharko da, eta instalazioaren edukiera osorako zenbatuko da bertan dagoen jendea.
- Era berean, irteera adierazitako ibilbidetik egingen da.
- Tabernako komunak 20:00etatik aurrera -ekaina eta iraila- eta 20:30etik aurrera -uztaila eta abuztua- irekiko dira.